

OSINTXUKO LUDOTEKA ZERBITZUA KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKIA ARAUTUKO DUEN BALDINTZA PLEGUA

1.- XEDEA.

Prozedura ireki honen xedea Osintxun dagoen ludoteka dinamizatzea eta kudeatzea da.

2.- KONTRATUAREN IRAUPENA.

Kontratu honek 2020ko abuztuaren 31ra arteko iraupena izango du, dena den edozein alde urte bakoitzeko abuztuaren 31n bukatutzat eman ahal izango du kontratua beste aldeari inolako kalte ordainik ordaindu gabe, amaiera baino gutxienez 3 hilabete lehenago beste aldeari idatziz abisatuta.

3.- KONTRATUAREN PREZIOA.

Kontratuaren prezioa honako hau izango da: 27.000 euro urtean (gehi % 10eko BEZa).
Prezio hori gehien-gehienekoa da eta lizitatzailleek beherantz hobetu ahal izango du.

Urteko prezioa udalak 12 hilabete banatuta ordainduko du.

Ekonomia desindexatzeko martxoaren 30eko 2/2015 Legeak agintzen duenaren arabera, ez da preziorik berrikusiko kontratu honetan.

Erakundea BEZa ordaintzetik salbuetsita egongo balitz, behar bezala justifikatu beharko du eta kopuru hori ez da eskaintzan sartuko.

4- ADJUDIKAZIO HARTZAILEAREN BETEBEHARRAK.

4.1.- Ludoteka Zerbitzua.

Zerbitzu hau interesa duten auzoko 3-12 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago. 0 – 3 urteko haurrak ere joan daitezke ludotekara baina heldu batekin lagunduta egon beharko dute. Begirale bi egongo dira eta zerbitzua asteleheneretik ostiralera 17:00etatik 20:00etara eskainiko da (jai egunetan izan ezik) irailtik ekainera bitartean. Uztailean eta abuztuan ez da ludoteka zerbitzurik izango. Ordutegi honi, eguneko ordubete gehitu beharko zaio prestakuntza, formazio, koordinazio eta garbiketarako.

Urtean zehar hileroko haurren batzbesteko asistentzia aldatzen baldin bada, zerbitzua eskaintzen egongo den begirale kopurua ere aldatuko da. Prezioa kalkulatzeko hiruko erregela aplikatuko da. Bi hilabete jarraiko batzbesteko asistentzia 15 umetik beherakoa bada, bi begiraletik bat desagertuko litzateke. Aldaketak egiteko bi hilabete jarraiko asistentzien batzbestek kontuan izango dira.

Adjudikazio hartzaileak Udaleko Gazteria Zerbitzuak emandako egutegia beteko du.

4.2.- Honako helburuak bete beharko dira.

- Auzoko haurren toki erreferentea eta beraien beharretara egokitutako aisialdi hezitzailea garatzeko baliabide estrategikoa izango da ludoteka.
- Jolasa edo ekintza ludikoa denbora librerako baliabide hezitzaile bezala erabili.
- Haurraren garapena sustatuko duten jarduerak bideratu.
- Balio hauekin lotutako ohiturak eta portaerak sustatu: errespetua, elkarbizitza, lankidetzeta, erantzukizuna, autonomia, berdintasuna, elkartasuna, aniztasuna eta justizia soziala.
- Programatutakoa ezintasuna fisiko, psikiko edo sentsoriala duten haurrei egokitu behar zaie.

- Ludotekaren garapenean haur eta gurasoen inplikazioa sustatu.
- Euskararen erabilera sustatu eta bermatu.
- Zerbitzuan eta zerbitzutik bideratutako ekintzetan neska eta mutilen aukera berdintasuna bermatu.
- Haurren dibertsioa eta gozamina.
- Bizitarako jarrerak eta trebetasunak (ezagutzazkoak, sozialak, psikomotrizitatekoak, afektiboak...) lortu eta garatzea.
- Gizarteratzeko harremanak garatu.
- Umeen artean Osintxuri buruzko ezagutza bultzatu eta auzo identitatea indartu.

4.3.- Funtzionamenduari dagokionez ondorengo bete beharko da Programazioa.

- Hezitzaileek programazioa hilabeterako egingo dute eta gauzatutako programazioa hilerok bidaliko diote Udaleko Gazteria Zerbitzuari programatuko den hilea baino 7 egun lehenago. Programaketarekin batera aurreko hileko asistentziak ere bidaliko dituzte. Horrez gain, hiruhilabete bukaeran zerbitzuaren puntu nagusiak jasotzen dituen hiruhileko txostena aurkeztuko dute.
- Egun puntualetan ekintza bereziak egingo dira: inauteriak, martxoaren 8a, euskararen eguna eta Olentzero.
- Udaberri eta udan, eguraldiak laguntzen duenean, astean behin ludoteka kalera aterako da.
- Guraso eta haurrek parte hartzeko bideak bermatuko dira.

Koordinazioa.

- Enpresa, gutxienez bi hilean behin Gazteria Zerbitzuekin elkartuko da, ludotekaren jarraipena egiteko eta unean-uneko erabakiak hartzeko.

Ebaluazioa

- Ludotekako haurren gurasoekin, urtero, gutxienez bi bilera egingo dira. Lehenengoa urrian proposamenak jasotzeko (ekintzak, irteerak...) eta bigarrena ekainean, ikasturteko balorazioa egiteko.

Materiala

- Zerbitzua martxan jartzeko beharrezko materialaren zerrenda adostuko da udala eta adjudikazio hartzailearen artean. Material hori udalak erosiko du eta udalaren jabetzakoa izango da. Inbentariagarria ez den materialaren kostua adjudikazio hartzailearen gain joango da.

4.4.- Beste betebeharrak orokor batzuk.

- Zerbitzua eman behar duen pertsonak ondorengo eskakizun hauek bete beharko ditu:
 - Eskola graduatuaren jabe izatea, Lanbide Hezkuntza 1 tituluaren jabe izatea edo maila bereko titulazioaren jabe izatea.
 - Aisialdiko begirale titulua izatea.
- Utzi diren lokal eta materialak egoera onean eduki behar dira, ondo zaintzeko bitartekoak erabiliz. Ondo zaintzeaz ulertzen da, beste batzuen artean, eguneroko garbiketa, zainketa eta lokalaren apainketa. Garbiketarako materiala adjudikazio hartzailearen gain joango da. Kontratua sinatzeko garaian uzten diren ondasunen inbentarioa egingo da adjudikazio-hartzailearen aurrean; inbentario hori kontratuaren indarraldian aldatu egin ahal izango da, bi aldeak horretarako ados egonez gero.

-Partehartzaileek eta bere langileek portaera ona izan dezaten begiratu eta zerbitzu egokia eskaini.

-Aipatutako betebeharrak beste bati errentan jarri, laga edo eskualdatzerik ez dago; ez baldin bada Udalaren baimen idatziarekin.

-Beharrezkoak diren langileak kontratatzea eta Gizarte Segurantzaren alta ematea.

-Gai laboral, fiskal eta Gizarte Segurantzaren aldetik indarrean dauden xedapenak betetzea.

-Lanen ondorioz Udalari edo beste norbaiti kalterik eraginez gero, kalte guztiengatik kalte-ordainak ordaindu beharko dizkio, eta baita bere betebeharrak betetzean eragindako kalteengatik ere. Horretarako gutxienez 120.000 euroko kapitala duen erantzukizun zibileko aseguru kontratatu beharko du adjudikazio hartzaileak begirale bakoitzeko. Aseguru honek hirugarrenei (Bergarako Udala barne) egindako kalteak estaliko ditu.

-Zerbitzu honetan erabili beharreko dokumentu guztietan Bergarako Udalaren armarrria eta "Bergarako Udala" testua azaldu beharko du euskaraz gutxienez.

-Udalak jartzen dituen jarraibideak errespetatu eta bete beharko dira zerbitzu bakoitza gauzatzerakoan.

- Bere plantillan integratutako koordinatzaile bat izendatzea.

4.5.- Hizkuntza irizpideak

Hizkuntza gaitasuna

Bergarako Udalarekin eta hirugarrenekin harremana izango duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek Bergarako Udalak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez; horregatik, eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan izanik, Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila (ahozko parte) egiaztatu beharko dute jardueran parte hartuko duten begiraleek.

Kontratua adjudikatu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonak badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna.

Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeke honako bi bideak erabili ahal izango dira:

- Zerbitzua eman behar du(t)en pertsonak/ek eskatutako hizkuntza gaitasuna dauka(te)la ziurtatzen duen agiria aurkeztea edo,
- Bergarako Udalak erabakitako froga egitea.

Hizkuntzazko arau eta irizpideak

Kontratazio honen bidez bideratuko diren aisialdiko jarduerak euskaraz bideratuko dira; izan ere ekintzen helburuetako bat umeetan euskararen erabilera sustatzea baita.

Kontratua dela eta herritarrekin bideratzen diren komunikazioetan euskarazko harremanak sustatuko dira, Udaleko planean herritarrekiko harremanetarako finkatutako irizpideen arabera, beti ere herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuaz.

Udaleko Gazteria Zerbitzuak edo Euskara Zerbitzuak emango dizkio enpresa adjudikazio-hartzaileari irizpideon gaineko azalpen zehatzak.

Enpresa adjudikazio-hartzailearen eta Udalaren arteko harreman administratiboak euskaraz bideratuko dira.

5.- UDALAREN BETEBEHARRAK.

5.1. Zehaztutako diru kopuruak ordaintzea 12 hilabetetan banatuta. Horretarako, faktura aurkeztu beharko du eta fakturarekin batera, langileen hileko soldata ordaindu izanaren agiria eta baita aurreko hileko TC1 eta TC2-a, baita horiei dagokiona ordaindu izanaren agiria. Autonomia balitz autonomo bezala aurreko hileko kuota gizarte segurantzari ordaindu izanaren agiria.

Prezio horretan kontratatzen diren zerbitzuak aurrera eramateko sortzen diren gastu guztiak barne direla ulertzen da (kontratazioak, Gizarte Segurantzako kotizazioak, administrazio kostuak, inbentariagarria ez den materiala...).

5.2. Ahal den guztietan adjudikazio-hartzaileari laguntzea.

5.3. Lokalak egokitzea eta hurrak jolasteko behar duten materiala erostea baldintza hauetan:

- Adjudikazio hartzailea utzitako materialaren erantzule egingo da eta zaindu egingo du.
- Adjudikazio-hartzaileak ekipamendurako jolas material berria erosi beharra ikusiko balu, honek udalaren onarpena lortu beharko du aurretik.

5.4. Matrikula kobratzea: udalak ludotekan parte hartzen duen ume bakoitzeko matrikula kobra dezake. Kopuru hori irailean zehaztuko luke Udalak.

6.- ALDAKETAK.

Zerbitzua eskaintzen ari den denboran, aldaketak egin daitezke ordutegian, haurren adin eta emandako zerbitzuetan, beti ere, bi aldeak ados egonez gero.

7.- LIZITATZAILEAK ETA BEHIN BEHINEKO GARANTIA

Gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide honetan, baldin eta beren ekonomi eta finantza-kaudimena eta gaitasun tekniko edo profesionala egiaztatzen badute, eta Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluan zehazten diren kontratatzeko debekuetakoren bat ere ez badute. Kaudimena egiaztatzeko eta ebaluatzeko bideak 8. baldintzan ezarritakoak izango dira.

Halaber, nor bere kabuz edo baimendutako ordezkariaren bitartez jardun ahal izango dute. Ordezkarien kasuan berriaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten izenean horko kide bat datorrenean, agiri bidez justifikatu beharko du ahalmena duela horretarako. Bi kasuetan ere, kontratatzeko gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Gainera, lizitatzailleek helburu izan behar dute kontratu honen helburuarekin zuzeneko lotura duten ekintzak egitea, eta kontratua behar bezala betetzeko nahiko elementu pertsonal eta material daukan antolaketa-talde bat eduki behar dute.

Lizitazioan parte hartzeko, 810 euroko behin-behineko fidantza ezartzea derrigorrezko baldintza izango da.

8.- PROPOSAMENAK.

Lizitazioan parte hartzeko proposamenak Bergarako Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, deialdi honi buruzko iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita 15 egun naturaleko epean, astelehenetik ostiralera, goizez, 9:00etatik 13:00etara bitartean. Epea larunbata, igande edo jaiegun batean bukatzen bada, hurrengo laneguneko eguerdiko 13:00etan bukatuko da epea.

Kontratazio honen espedientea aztertu ahal izango da udaletxean goizeko 09:00etatik 13:00ak arte (astelehenetik ostiralera) proposamenak aurkezteko epealdian.

Lizitazio hau Udaleko Kontratatzaillearen Profilean iragarriko da, eta pleguetara sarbidea bertatik egin ahal izango da ondorengo web orrialdean: www.bergara.eus

Administrazio Publikoen Kontratuen Legeko Erregelamendu Orokorreko 80. artikuluari jarraituz, korreoz ere aurkeztu ahal izango dira proposamenak. Horretarako lizitatzailleak proposamena Postetxean aurkeztu duen data justifikatu beharko du, eta proposamena postaz bidali izanaren frogagiria bidali beharko dio Bergarako Udalari faxez (fax zenbakia: 943779163) klausula honetako lehenengo lerraldian adierazitako epea bukatu baino lehen. Baldintza bi horiek pilatu ezean ez da proposamenik onartuko, proposamenak aurkezteko epea amaitzeko eguna baino beranduago jasotzen bada. Edozelan ere, adierazitako egunetik hamar egun natural igaroz gero proposamena jaso barik, proposamena ez da inolaz ere onartuko.

Ezkutukoak izango dira proposamenak eta horiek aurkezteak esan nahi du baldintzarik gabe onartzen duela enpresariak plegu honetan aurreikusitako guztia.

Lizitatzailleek ezin izango dute aurkeztu aldagairik edo alternatibarik, baina bai aurkeztu ditzakete bidezkotzat jotako hobekuntzak.

Proposamenak gutunazal itxi batean aurkeztuko dituzte ondorengo idatzi honekin: "OSINTXUKO LUDOTEKA ZERBITZUA emateko lizitazioan parte hartzeko proposamena". Gutunazal horren barruan A, B eta C gutunazalak sartuko dira.

"A" gutunazalean, "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA SOLBENTZIA" izenburupean, ondorengo dokumentu hauek sartuko dira:

- a) Proposamena aurkezten duen pertsonaren NANA, bai norbere izenean bai ahaldun moduan aurkezten badu, edo bestela kautotutako kopia.

Lizitatzaillea pertsona juridikoa bada: eratze edo aldaketa eskritura (Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatutakoa) eta identifikazio fiskaleko zenbakiaren kopia kautotuta. Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europako Erkidegokoak, nahikoa da lanbide edo merkataritza erregistro batean inskribatuta daudela egiaztatzea, dagokion estatuko legediak betekizun hori eskatzen baldin badu.

- b) Lizitatzailleak norbere izenean ez diharduenean edo lizitatzaillea sozietate bat edo pertsona juridikoa denean, ahalorde notariala, ordezkatzeko duen pertsona edo entitatea ordezkatzeko. Ahalorde hori behar bezala inskribatuta egon behar da, hala badagokio, Merkataritza Erregistroan; edo, ordezkaritza pertsonala izanez gero, dokumentu publikoan.

c) Eskaintza sozietate baten izenean aurkezten denean, eskaintzarekin batera, sozietatearen eratze eskrituren edo sozietatearen estatutuen aldatze kopia erantsiko da.

d) Kaudimen ekonomikoa eta finantzaketakoa kreditatzen du(t)en dokumentua edo dokumentuak.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuan 75. artikuluan datozen moduetako batean egiaztatu beharko da.

e) Kaudimen teknikoa edo profesionala egiaztatzen du(t)en dokumentu edo dokumentuak.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 67. artikuluan agertutako eraren batean egiaztatu beharko da.

f) Bere erantzukizunpean Sektore Publiko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 60. artikulua jasotako debeku kasuek ez diotela eragiten adierazten duen aitortpena.

g) Espainiako Epaitegi eta Auzitegien jurisdikzioaren menpe egongo dela adieraztea, kontratuaren ondorioz izan litezkeen intzidentzia guztietarako, eta lizitatzailari egokitu lekiokoen atzerriko foru jurisdikzionalari uko egiten diola (atzerriko enpresentzat bakarrik).

h) Udal Kontuhartzailetzan 810 euroko behin-behineko fidantza jarri dela egiaztatzen duen agiria.

i) Betebehar fiskaletan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean dagoela adierazten duten egiaztatgiriak edo zinpeko aitortpena.

j) Kontakturako telefonoa eta fax-a eta/edo e-maila.

Dokumentazio originala euskara edo gaztelera ez den hizkuntza batean idatzita badago, bi hizkuntza hauetako baten itzulpen ofiziala erantsi beharko da.

OHARRA: Enpresa lizitatzaila Euskal Autonomi Erkidegoko edo Estatuko Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emanda badaude, a) b) eta c) ataletan eskatzen den dokumentazioa aurkeztu ordez, Erregistroko arduradun letratuak emandako ziurtagiriaren kopia kautotua aurkeztu ahal izango dute, eta horrekin batera lizitatzailaren zinpeko aitortpena, dokumentu horretan adierazten den egoerak aldaketak jaso ez dituela esanez.

Hainbat enpresak lizitaziora aurkezteko bat egiten badute Aldi Baterako Enpresa Elkartea (ABEE) sortuz, ABEE osatzen duten enpresa bakoitzak bere gaitasun eta solbentzia egiaztatu beharko du aurreko puntuetan adierazi bezala, eta zerbitzua beraiei adjudikatuz gero ABEE osatzeko konpromiso formala aurkeztu. Era berean, enpresa bakoitzak ABEEaren barruan hartuko duen kontratuaren zatia adierazi beharko dute, guztien solbentzia-eskakizunak konprobatzeko eta zehazteko helburuarekin. Gainera, kontratuaren indarraldian Administrazioaren aurrean guztien ordezkari izango duen pertsona izendatuko dute.

Zerbitzua adjudikatzen ez zaien enpresa lizitatzailaiek, kontratua adjudikatu ondoren eta errekurtsioak jartzeko epea errekurtsorik jarri barik bukatutakoan, "A" sobrea jarritako dokumentazioa itzularaztea eska dezakete. Enpresa adjudikatzaileak ere eskatu ahal izango du, kontratuaren exekuzioa bukatu eta behin betiko bermea itzulitakoan. Dokumentazio hau administrazioaren esku gelditu eta bi hilabete iragandakoan, suntsitu ahal izango du.

"B" gutunazalean, PROIEKTUA aurkeztu beharko da eta bertan, ludotekaren oinarri teorikoa, programazio eta ebaluaketarako tresnak, ez-ohiko ekintzak (Osintxun eta Osintxutik kanpo gauzatuko direnak) eta haur eta gurasoen partaidetza sustatzeko jarduerak jasoko dira. Proiektuak Osintxuko ludotekarako hilabeteko programazioa ere izan beharko du.

Inoiz ez da sartuko gutunazal honetan proposamen ekonomikoa. Sartuz gero lizitatuzailea prozedura honetatik kanpo geratuko da, eta ez da irekiko "C" kartazala.

"C" gutunazalean, proposamen ekonomikoa sartuko da, ondorengo eredia jarraituz:

"Izen abizenak: _____

Bizilekua: _____

N.A.N. zenbakia: _____

Noren ordezkari: _____

Kontakturako e-maila edo fax-a: _____

OSINTXUKO LUDOTEKA ZERBITZUA emateko Bergarako Udalak deitu duen prozedura irekiaren baldintzen berri izanda, horiek betetzeko konpromisoa hartzen dut, baita baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboak eta adjudikazio erabakiaren ondorioz sortzen diren gainerakoak betetzeko, eta ezartzen zaion legezko araudia ere betetzeko, urteko.....eurotan gehi... BEZari dagozkionak. Hau da,.....eurotan (BEZ barne)."

Bergaran, 2016ko.....

Sinadura

Ereduaren arabera idatzi ez den proposamen ekonomikoa bakar bat ere ez da onartuko.

Inoiz ez da sartuko kartazal honetan "B" kartazalean sartu beharreko dokumentazioa. Dokumentu horietatik edozein sartuz gero "C" kartazalean, ez dira baloratuko agiri honek.

Lizitatuzaile bakoitzak proposamen bakar bat aurkeztu ahal izango du. Norbaitek bat baino gehiago aurkeztuko balu, denak atzera botako dira.

9.- PROPOSAMENAK IREKITZEA.

Proposamenak ireki baino lehen, Mahaiak "A" kartazalean aurkeztutako dokumentuak sailkatuko ditu, eta, dokumentazio horretan akats materialik sumatuz gero, hiru laneguneko epea eman ahal izango dio lizitatuzaileari akatsa zuzen dezan.

Kontratazio Mahaiak proposamenak Udaletxean irekiko ditu (San Martin Agirre Plaza,1ean) proposamenak aurkezteko epea amaitu eta lau egunetara eguerdiko 12:30ean.

Ekitaldi honetan bakarrik onartutzat eman diren proposamenen "B" kartazala irekiko da, ekitaldi publikoan.

Hasierako deialdi honen mantentzea edo, kasu, aldaketak argitara emango dira kontratatzailearen profilean (www.bergara.eus), baina jakinarazpenetarako egoki jotzen den beste edozein bide ere erabili ahal izango da.

“B” kartazalean jasotako eskaintzak baloratu ondoren, Kontratazio Mahaiak proposamenen “C” kartazala (eskaintza ekonomikoa) irekiko du, ekitaldi publikoan hau ere. Ekitaldi horretarako deialdia ere kontratatzaileen profileen (www.bergara.eus) argitaratuko da, baina jakinarazpenetarako egoki jotzen den beste edozein bide ere erabili ahal izango da.

Kontratazio mahaia honako hauek osatuko dute:

LEHENDAKARIA:

-Bergarako udaleko alkate-lehendakaria edo berak eskuordetzen duena.

BOKALAK:

-Gazteria eta Hezkuntza batzordeburua.

-Kontuhartzailea edo berak eskuordetzen duena.

-Udaleko idazkaria edo berak eskuordetzen duena.

IDAZKARIA

-Udalbatzakoa edo berak eskuordetzen duena.

Mahaiaren bileretara udaleko arduradun/teknikari guztiak etorri ahal izango dira, mahaiak horrela eskatzen badu, aholkularitza-lanak egiteko, eta mahaiak bidezko irizitako txosten tekniko guztiak ere eskatu ahal izango ditu.

10.- ADJUDIKAZIORAKO KONTUAN IZANGO DIREN ZIRKUNSTANTZIAK.

- Aurkeztutako proiektua: 40 puntura arte. Kontuan izango dira:

-Oinarri teorikoa - (gehienez 10 puntu).

-Programazioa bera - (gehienez 10 puntu).

-Proiektuaren antolaketa / argitasuna - (gehienez 5 puntu).

-Programazio eta ebaluaziorako tresnak - (gehienez 5 puntu).

-Zerbitzuak auzoan izango duen eragina, auzoari begira antolatutako ekintzak - (gehienez 5 puntu).

-Haur eta gurasoen parte-hartzea bultzatzeko garatuko diren ekintzak - (gehienez 5 puntu).

-Eskaintza ekonomikoa: 10 puntura arte.

10 puntu emango zaizkio prezio merkeena eskaintzen duen proposamenari eta gainontzeko proposamenen puntuazioa formula honetatik aterako da: prezio merkeena duen eskaintzaren eta baloratzen den lizitzailearen eskaintzaren arteko zatidura bider irizpideari aplikatu dakizkiokeen puntuen kopuru osoa, ateratzen den emaitza. Hau da,

$$LP = ET/LE \times 10$$

LP: lizitzailearen puntuazioa

ET: eskaintzarik txikiena

LE: lizitzailearen eskaintza

11.- ADJUDIKAZIOA.

Kontratazio mahaiak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 320.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratazio organoari bidaliko dizkio aurkeztu diren proposamenak, akta eta adjudikazio proposamenarekin batera.

Kontratazio Organoak, aukeran, ahalmena izango du kontratua proposamen onuragarriari adjudikatzeko edo prozedura ezerezean geratu dela adierazteko, baina kasu guztietan arrazoitu egin behar du hori.

Alkatetzatik errekerimendua egingo zaio eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatuari, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita hamar laneguneko epean, jardun hauek egin ditzan:

- a) Egiaztagiria aurkeztu beharko ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik dituela frogatzeko, baldin eta ez baditu agiri horiek proposamenarekin batera aurkeztu.
- b) Behin betiko fidantza ezarri. Fidantza hori adjudikazio-prezioaren % 5koa (BEZ kanpo) izango da eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 96. artikuluan xedatutako edozein eratan ezarri ahal izango da.
- c) Udal honekiko betebeharretan egunean dagoela egiaztatzen duten agiriak aurkeztea.
- d) Kontratua aurrera eramateko beharrezko bitartekoak jarriko direla adierazten duen dokumentua aurkeztea.
- e) Udalak plegu honetako 4.4 puntuan eskatutako erantzukizun zibileko poliza kontratatuta duela adierazten duen aseguru etxeak egindako ziurtagiria.
- f) 11. puntuan aipatutako koordinatzaile teknikoaren datuak.

Adjudikazioa lizitatuak dokumentazioa aurkeztu eta hurrengo 5 lanegunetan gauzatuko da, betiere lizitatuak adierazitako dokumentazioa aurkeztu badu eta behin betiko bermea jarri badu.

Eskaintza onuragarriena egin duen lizitatuari kontratuaren adjudikazioa egiten ez zaionean, hark ez dituelako bete hartarako beharrezkoak dituen baldintzak, beste deialdi bat egin baino lehen, Administrazioak errekerimendu berri bat bidali diezaike ondorengo lizitatuari, eskaintzak sailkaturik geratu diren ordenaren arabera, eta hala denean 5 laneguneko epea emango zaio hari lehen adierazitakoak betetzeko.

Adjudikazioa gehienez bi hilabeteko epean egingo da, proposamenak ireki eta biharamunetik kontaktzen hasita. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 161.3 artikuluan aurreikusten denez, epe hori hamabost lanegunetan luzatuko da Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 152.3 artikuluan zehaztutako tramiteak jarraitu behar direnean, balio anormalak edo neurritz gainekoak dituzten eskaintzak antzematen diren kasuetan.

Eskaintza anormaltzat edo neurritz gainekotzat jotzen denean, eskaintzari (edo eskaintzaileei, hala dagokionean) entzun egingo zaio, eta dagokion zerbitzuak aholkularitza teknikoa egin beharko du.

Kasu horretan, lizitatuak emandako arrazoiak eta eskatutako txostenak aintzat hartuta, kontratazio-organismoak proposamenik onuragarriena egiten duen lizitatuari egingo dio adjudikazioa, Administrazioaren esanetan lanak egoki egiteko gaitasuna badu; bestela, anormaltzat edo neurritz gainekotzat jotzen ez den proposamenari egingo zaio adjudikazioa.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 155.2 artikulua arabera, kontratua burutzeari edo jardunbide honi uko egiten bazaio, adjudikazioak lizitatzaleei eragindako gastuak konpentsatzeko Administrazioak zehaztuko ditu gastuok, lizitatzaleei entzunaldia eman eta gastuak justifikatu ondoren.

Kontratua hobetuko da administrazio agirian sinatuta, adjudikazioaren jakinarazpenean adierazitako epean.

Adjudikazio-hartzailearen erruagatik kontratua formalizatu gabe geratzen bada, Udalak bertan behera utzi ahal izango du kontratua, interesduna entzun eta gero, eta honek kalte-ordainak ordainduko beharko ditu.

12.- KONTRATUA BURUTZEA.

Kontratua beteko da zurrun eta zorrotz jarraituta Baldintzen Pleguak dionari, eta, edozein kasutan ere, Udalaren ordezkariak, kontratistari, agiri horiek diotena burutzeko edo interpretatzeko orduan idatziz emandako jarraibideei.

Kontratista derrigortuta dago kontratua burutzeko epea betetzera; berandutzak ez du eskatzen Udalak aurretik ohartarazi beharrik.

Kontratista, zerbitzua edo prestazioa emateko, derrigortuta dago kontratua zuzen betetzeko beharrezkoak diren bitarteko laguntzaile guztiak eta ekipoa jartzera, kontratuan bertan hitzartutako epeetan.

Kontratu hau burutuko duten langileei dagokienez, enpresa kontratistak bere gain hartzen du edozein enpresabururi dagokion zuzendaritza-botereaz baliatzeko obligazioa

Kontratu hau burutuko duten langileei dagokienez, enpresa kontratistak bere gain hartzen du edozein enpresabururi dagokion zuzendaritza-botereaz baliatzeko obligazioa. Bereziki, ondoko betebeharrak hartuko ditu bere gain: ordainsariak negoziatzea eta ordaintzea; baimenak, lizentziak eta opor-egunak ematea; lan-arriskuen prebentzio alorrean legez dauden betebeharrak betetzea; diziplina-zehapenak ezartzea -hala egitea dagokionean; Gizarte Segurantzaren alorreko obligazioak betetzea –kotizazioen ordainketa eta prestazio-ordainketa barne; eta baita enplegatuairenen eta enplegatzailearen arteko lan-kontratutik sortzen diren gainerako eskubide eta obligazio guztiak ere.

Enpresa kontratistak, gutxienez, koordinatzaile tekniko bat edo arduradun bat izendatu beharko du –bere plantillan integratua- eta, beste batzuen artean, obligazio hauek izango ditu:

A.- Kontratuarekin zerikusia duten gauza guztietarako, kontratistaren pertsonalak Administrazioarekin egin behar duen edozein komunikazio jaso eta emateko orduan, beti izango da koordinatzailearen, teknikariaren edo horretarako izendatu den solaskidearen bidez.

B.- Enpresaren lan-arauak betetzen direla kontrolatzea, batik bat, pertsonala lanlekura joan behar denean edo oporrak hartzen dituenean; kontratatutako zerbitzuaren eskaintza ez nahasarazteko.

C.- Kontratua egitera atxiki diren enplegatuek kontratuari atxikita segitzen ez dutenean, Administrazioari horren berri eman behar zaio, bereziki, haiek zeuzkaten lan bitartekoak modu egokiagoan kudeatu ahal izateko.

Enpresa kontratisten pertsonalak, edo, kudeaketa-mandatu baten ondoren, bere zerbitzuak udaleko lantokietan edo haren erakunde publikoetan eskaintzen dituenak, ezingo dute zerbitzu hauetarako sarbiderik izan:

a) Prestakuntza-ikastaroak –lan arriskuen prebentzio alorrean derrigorrez bete beharrekoak izan ezik.

b) Erakundearen posta elektronikoa. Posta elektronikoko konturen bat izendatu behar bazaie, posta elektronikoaren helbidean garbi utzi behar da kanpoko pertsonala dela.

c) Enplegatutako publikoak sartzeko kontrol-txartelak. Hala bada kasua, sartzeko baimen berezi bat emango zaie. Instalazioetara sartzeko kontrolak, inondik inora ere ez du esan nahi kontratistaren ordutegiaren kontrola egiten denik.

Hitzartutakoa burutzeari dagokionez, kontratuak duen termino horietako edozein ez ezagutzeak, kontratuaren zati diren dokumentu erantsiak ez ezagutzeak edo Administrazioak onartu dituen mota guztietako Baldintzak edo arauak, jarraibideak edo aginduak ez ezagutzeak, ez du salbuesten kontratista kontratua betetzeko duen bere obligazio horretatik.

Kontratistaren arriskuz eta zoriz egingo da kontratua.

Plegu honetan datozen klausulei lotuta beteko da kontratua eta kontratua interpretatzeko Administrazioak kontratistari emandako jarraibideen arabera.

13.- KONTRATUAREN LAGAPENA ETA AZPIKONTRATUA.

Kontratuari darizkion eskubideak eta obligazioak beste hirugarren bati laga dakizkioke baldin eta 3/2011 EDLaren 226. artikulua ezartzen dituen baldintzak betetzen badira.

Azpi-kontratazioa: Kontratu honetan ez da horrelakorik onartzen.

14.- KONTRATUA ALDATZEA.

Arlo honetan, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren I. liburuko V. Tituluak eta 219. artikulua diotena eta Administrazio Publikoen Kontratazio Erregelamenduaren 102. artikulua ezarritakoa beteko da.

Ez da aurreikusten kontratua aldatzeko aukerarik. Beraz, soilik aldatu ahal izango da 107.1 artikulua aipatzen dituen inguruabar horietarikoren bat gertatzen dela behar bezala justifikatzen bada; eta, beti ere, lizitazioaren eta kontratuaren adjudikazioaren funtsezko baldintzak aldatzen ez badira, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 107.3 artikulua ezartzen duen eran.

15.- ARRISKUA ETA GORABEHERAK.

Kontratuaren arrisku eta gorabeheren erantzukizuna adjudikazio hartzailearena izango da eta ez du izango zerbitzuan gertatutako galera, matxura edo kalteengatik kalte-ordainak jasotzeko eskubiderik, ezinbesteko kasuan izan ezik.

16.- BALDINTZA LABORAL ETA SOZIALAK.

Zerbitzuaren adjudikazio hartzaileak bere betebeharrak betetzeko beharrezko diren langileak kontratu beharko ditu. Langile horien arduradun bakarra adjudikazio hartzailea izango da. Hori dela eta, adjudikazio hartzaileak nagusiaren eskubide eta betebeharrak guztiak izango ditu eta lan arloan, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higiene arloan indarrean dauden xedapen guztiak bete beharko ditu bere menpeko langileekin.

Lanak egiten ari direla langileei istripu edo bestelako edozein kalte gertatuz gero, adjudikazio hartzaileak indarrean dauden arauetan ezarritakoa beteko du bere erantzukizunpean, eta Bergarako Udalak ez du inolako erantzukizunik izango.

Begarako Udalak betebeharrak horiek betetzen direla egiaztatzea eskatu ahal izango du, edozein unetan eta egokien irizten dion eran.

Kontratua amaitzean Udalak ez du adjudikazio hartzaileak kontratatu edo haren zerbitzuan izan den inolako langileren erantzukizunik hartuko.

17.- PRESTAZIOA HARTZEA ETA BERME EPEA

Kontratua amaitu eta, gehienez, hilabete bat pasa baino lehen, zerbitzuaren harrera formala egingo da hartze-akta jasota:

Kontratu-mota honen izaera dela eta, ez da berme-epetik jarri behar.

18.- FIDANTZAREN ITZULKETA

Berme-epaia amaitzen denean, esleipendunari bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beterik badaude. Itzulketa hori goian aipatutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 102. artikuluan xedatutakoarekin bat etorri egingo da.

19.- EZ-BETETZEAK.

Ez-betetzeak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

19.1. Ez-betetze arinak.

Arautegi orokorrak eta Baldintza Pleguak ezarritako betebeharrak ez betetzea, eta ez-betetze larria edo oso larria ez denean.

19.2. Ez-betetze larriak.

19.2.1. Urte barruan hiru aldiz Udalak edota Baldintza Pleguan zerbitzua emateko moduari buruz agindutakoa ez betetzea.

19.2.2. Osasun arauak ez betetzea edo publikoarentzat egoera osasungaitz, arriskutsu edota kaltegarriak izan daitezkeenak gerta ez daitezkeen Alkatetzak emandako arauak ez betetzea.

19.2.3. Udalak ezarritako zerbitzuaren xehetasunen aldaketak, adjudikazio hartzailearentzat gasturik suposatzen ez dutenak, ez betetzea.

19.2.4. Ezarritako ordutegia ez betetzea.

19.2.5. Akatsak zuzentzeko Udalak emandako aginduak ez betetzea.

19.2.6. Bi ez-betetze arin egitea sei hilabeteko epe barruan.

19.3. Ez-betetze oso larriak.

19.3.1. Zerbitzua, nabari-nabari, akatsekin eta irregulartasunez ematea, ezarritako baldintzak bete gabe.

19.3.2. Udalaren baimenik gabe zerbitzu osoa edo partzialki zeditzea, errentan jartzea edo eskualdatzea.

19.3.3. Zerbitzua ematen duten langileekiko betebeharrak laboralak eta Gizarte Segurantzakoak ez betetzea.

19.3.4. Dokumentazio faltsua aurkeztea.

19.3.5. Ez-betetze larriak bi aldiz egitea sei hilabeteko epe barruan.

20.- PENALIZAZIOAK.

19. baldintzak arautzen dituen ez-betetzeek honako penalizazio hauek izan ditzakete:

- Ez-betetze arinak: 540€-tik 721€-ra.
- Ez-betetze larriak: 722€-tik 1.112€-ra.
- Ez-betetze oso larriak: 1.113€-tik aurrera.

Penalizazioa, udalak egin beharreko ordainketetatik deskontua eginda kobratuko da eta hori posible balitz behin betiko fidantzaren kontra kobratuko da. Azken kasuan 15 eguneko epean osatu beharko da berriz fidantzaren kopurua.

Edozein kasutan ere, penalizazioak ezarri aurretik enpresa adjudikazio-hartzaileari entzunaldia emango zaio.

21.- KONTRATUA ETETEKO ARRAZIOAK

Kontratua eteteko arrazoiak izango dira, 19. baldintzan aurreikusitakoez gain, Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateratuaren 223 eta 308. artikuluetan jasotakoak.

Kontratua adjudikazio-hartzaileari atxiki dakiokkeen arrazoiren batengatik eteten bada, ezarritako behin betiko fidantza galduko du.

22.- BESTELAKOAK.

Interes publikoko gorabeherak tarteko direla, epea amaitu baino lehen, edozein momentutan kontratua eraginik gabe uzteko gaitasuna izango du Udalak.

Halaber, berari dagokio baita kontratua interpretatzea ere, kontratuan sor daitezkeen zalantzak argitzea eta herri onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea.

Horretarako hartutako erabakiek amaiera emango diote bide administratiboari eta hartzen diren unetik betebeharrekoak izango dira.

23.- DATU PERTSONALAK.

Adjudikazio hartzaileak sekretu profesionalpean gordeko ditu kontratu honen arabera eskuratu ahal izango dituen datu pertsonalak, eta agindu hori errespetatu egin beharko du baita Udalarekin izango dituen harremanak amaitzean ere.

Halaber, eskuratutako datuak bakarrik zerbitzu konkretu hau emateko erabili ahal izango ditu eta ezin izango ditu beste helburu baterako aplikatu edo erabili.

Bestalde, Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoaren 12.2 artikuluko 2. paragrafoaren arabera, neurri teknikoak eta antolakuntzari dagozkion neurriak hartuko ditu, datu pertsonalen segurtasuna eta osotasuna bermatzeko eta, baimenik gabe datu horiek inork ez ditzan aldatu, galdu, tratatu edo eskuratu.

Hemen jasotako baldintzak ez betetzeagatik sor daitezkeen edozein erantzukizunetatik libre geratzen da Udala. Hain zuzen ere, adjudikazio hartzaileak datu pertsonalak plegu honetan jasotako helbururen batekin erabiltzen ez baditu, datuak isilpean gordetzeko eta hirugarrengoei ez jakinarazteko duen betebeharra betetzen ez badu, edo, era batera edo bestera, baldintzen pleguan jasotakoa errespetatu gabe erabiltzen baditu.

Kasu guztietan adjudikazio hartzailea tratamenduaren erantzuletzat hartuko da. Hala, arduradun horrek erantzungo du berak egindako arau hausteagatik, eta baita Datuen Babeserako Agentzietan interesatuek aurkez dezaketen edozein erreklamaziorengatik ere eta, bere kasuan, kaltetuari onar dakiokkeen kalte ordainarengatik. Kaltetuak bere ondasun edo eskubideetan eragindako kalte edo galerarengatik erantzukizun akzioa erabiliko du kalte ordainak eskatzeko.

Kontratu lotura amaitu ondoren, adjudikazio hartzaileak erabili dituen datu pertsonalak Udalari itzuliko dizkio; eta, horiekin batera, baita tratatu den datu pertsonalen bat jasotzen den euskarri edo agiria ere.

24.- LEGE ARAUBIDEA.

Plegu honen arabera egingo den kontratuak izaera administratiboa izango du, eta bertan xedatzen ez den guztirako ondoko arauetara jarraitu beharko zaie:

- Toki Jaurbideko Oinarrien 7/1985 Legea, apirilaren 2koa; eta 781/1986 Errege Dekretu Legegilea, apirilaren 18koa, Toki Jaurbidearen alorrean indarrean dauden xedapenen Testu Bateratua onartzen duena.
- 3/2011 Errege Dekretu Legegilea, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duena.
- 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legea zati batean garatzen duena.

- Administrazio Publikoaren Kontratuen Legeko Erregelamendu Orokorra, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bitartez onartua.
- Eta besterik ezean, zuzenbide administratiboko bestelako xedapenak, eta halakorik ezean, zuzenbide pribatukoak.

PLIEGO DE CLÁUSULAS REGULADORAS DEL PROCEDIMIENTO ABIERTO PARA LA CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE LUDOTECA DE OSINTXU

1.- OBJETO.

Constituye objeto de este procedimiento abierto la dinamización y gestión de la ludoteca ubicada en Osintxu.

2.- DURACIÓN DEL CONTRATO

Este contrato se extenderá hasta el 31 de agosto de 2020; no obstante, cualquiera de las partes podrá dar por finalizado el mismo el 31 de agosto de cada año, sin que haya de abonar a la otra parte indemnización alguna, siempre que se lo notifique con un mínimo de 3 meses de antelación.

3.- PRECIO DEL CONTRATO.

El precio del contrato será de 27.000 euros/año (más 10 % de IVA).

Este precio tiene carácter de máximo y podrá ser mejorado a la baja por las licitadoras.

El ayuntamiento abonará dicho importe anual fraccionado en 12 mensualidades.

Tal y como establece la Ley 2/2015, de 30 de marzo, de desindexación de la economía, en este contrato no habrá revisión de precios.

En el caso de que la entidad esté exenta de IVA, deberá justificarlo debidamente y dicho importe no se incluirá en la oferta.

4.- OBLIGACIONES DE LA PARTE ADJUDICATARIA.

4.1.- Servicio de Ludoteca.

Este servicio está dirigido a la población infantil interesada del barrio de entre 3 y 12 años. Los niños y niñas de 0 a 3 años también podrán acudir a la ludoteca, pero deberán estar acompañados por una persona adulta. El servicio, en el que deberá haber dos personas como monitoras, se ofrecerá de septiembre a junio, de lunes a viernes (excepto festivos), de 17:00 a 20:00. En julio y agosto no habrá servicio de ludoteca. A este horario habrá de añadirse una hora diaria más para preparación, formación, coordinación y limpieza.

En caso de que durante el año existan variaciones mensuales en el promedio de asistencia de niños/as, podrá modificarse el número de monitores/as para la prestación del servicio. El precio se calculará siguiendo una regla de tres. En caso de que el promedio de asistencia de niñas/os durante dos meses seguidos sea menor de 15, se eliminará uno/a de los/as dos monitores/as. Para realizar modificaciones se tomarán en cuenta los promedios de asistencia de dos meses seguidos.

La adjudicataria deberá cumplir el calendario que establezca el Servicio Municipal de Juventud.

4.2.- Se deberán cumplir los siguientes objetivos.

- La ludoteca constituirá un lugar de referencia de la población infantil del barrio, un recurso estratégico donde puedan desarrollar un ocio educativo adaptado a sus necesidades.
- Utilizar el juego o actividad lúdica como recurso educativo para el tiempo libre.
- Canalizar actividades que promuevan el desarrollo infantil.
- Impulsar hábitos y conductas vinculadas a valores de respeto, convivencia, colaboración, responsabilidad, autonomía, igualdad, solidaridad, pluralidad y justicia social.
- Adaptar el programa para niños y niñas con incapacidades físicas, psíquicas o sensoriales.
- Promover la implicación de niños-niñas y padres-madres en el desarrollo de la ludoteca.
- Impulsar y garantizar la utilización del euskera.
- Garantizar la igualdad de oportunidades de chicas y chicos en el servicio y en las actividades promovidas desde el mismo.
- La diversión y el disfrute de niñas y niños.
- Adquirir y desarrollar actitudes y habilidades para la vida (conocimientos, habilidades sociales, psicomotricidad, afectividad...)
- Desarrollar relaciones para socializarse.
- Impulsar el conocimiento sobre Osintxu y fomentar la identidad de barrio entre la población infantil.

4.3.- En cuanto a funcionamiento, se deberá cumplir lo siguiente:

Programación.

